

3

ELHUYAR

EKAINA 1975

R.S.V.A.P.-en Zientzi eraskina

ZUZENDARIA: *Luis Bandrés*

IDAZKARIA: *Andoni Sagarna*

ZUZENBIDEA: *Círculo de San Ignacio. - San Marcial, 26, bajo. - San Sebastián*

«ELHUYAR»-EN EGITURA

Lehenengo alean genion bezala, maila desberdinetako lanei utzi behar diegu leku «Elhuyar»en.

Ikastoletan dago noski gure etorkizunaren giltzarria, eta horregatixe zaindu behar da asko arlo hau, baina irakasleentzat, maila xehe xehekoak ez diren beste gauza batzuk ere behar dira. Ikastoletatik landa ere bada zientzi gaiak euskaraz landu nahi lituzkeenik: dela unibertsitatetako euskal gazteria, dela teknika gauzatan dabilen jendea, t.a.

Haatik, egin ahala ez ditzakegu lanak argitara; hautapena egin behar dugu, lan mota bakoitzari bere garrantziaren arauerako lekua eman.

Hemendik aurrera horrela zatitu nahi genuke Elhuyar:

- Ikastolara begira eginiko lanak: erdia inguru.
- Zientzi hedapen lanak eta monografiak: laurden bat.
- Bibliografia, hiztegia, irakurleekin harremanak eta beste: laurden bat.

Azken atal honetan aipatzen den hiztegia ikastolara begira egindako lanei dagokiena bakarrik izanen da.

Izan ere zientzi eta teknika lanetako hitzak bere testu inguruan defi-

nitzen bait dira, eta erdarazko hitza euskarazkoaren ondoren ipintzeak ez lioke argitasunik emanen gaia ezagutzen ez duenari.

UZTARIZKO UNIBERTSITATEA

Joan diren urtetan Donibane Lohitzunen egin izan den lanaren jarraipen bezala, aurten Udako Euskal Unibertsitatea Ustaritzen izanen dugu.

Lekuz aldatzeak arrazoi erraz bat du. Beste urtetan Iraila hartu izan da ikastaro bezala, baina horrela Hego aldeko ikasle eta irakasle askok ez zuen joaterik izaten. Sasoina aldatzeak ere lekua aldatzea eskatu du. Aurtengo ekinaldian beste aldaketa bat ere lortu nahi litzateke: Unibertsitate hitzari gure inguruko gizarteak ematen dion esannahi «astunak» bildurturik edo, ikastolatako irakasleen aldetik ez du nahi hainbateko erantzunik izan orain arte.

Aurten, goizaldetik oinarrizko gaiak emango direnez gero, espero izatekoa da guztiontzat interesgarri den kurso horretara jendea ugari joango denik. Hala bedi.